

## **Merkatu Segmentazioa:**

Gaur egun jendea geroz eta luzeago bizi da eta ondorioz geroz eta zahar gehiago daudela antzeman dezakegu, medikuntzak ekarritako berrikuntzei esker. Baina guzti hau ezin izan zitekeen helduenek hartzen dituzten sendagai eta tratamendu berriei esker. Izan ere badakigu tratamenduak edota medikuaren aholkuak gogoratzea ez dela beti erreza. Egoera honen aurrean sortu dugu gure zerbitzu edo aplikazio berria.

Esan bezala, eskaintzen dugun produktua batez ere iraupen luzeko tratamenduak jarraitzen dituzte banakoei eta zaharrenei zuzendua dago bereziki, beti ere erabiltzaile bakoitzaren beharretara moldatuz eta pertsonalizatuz. Hala ere, beste edozein giza taldek edo farmaziek ere erabil dezakeetela aurreikusi dugu, gure jarduera merkatu mixto batera bideratuz.